ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA

OBSERVATORIO VASCO DE LA VIVIENDA

2017ko Birgaitzeko laguntzen inguruan onuradunek duten gogobetetasunaren ebaluazioa



ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA

OBSERVATORIO VASCO DE LA VIVIENDA

Aurkibidea

Aurkezpena **3**

1. Birgaitzeko laguntzei buruzko ezagutza: Informazio-bideak eta gogobetetasun-maila **4**

2. Laguntzak kudeatzeko prozesuak: erabili diren baliabideak eta balorazioa **9**

3. Eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT): ezaguera-maila eta jasotako informazioaren balorazioa **12**

4. Birgaitzeko laguntzei lotutako beste alderdi batzuen balorazioa **16**

5. Ondorioak **20**

Aurkezpena

Txosten honetan, 2015. eta 2016. urteetan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eraikinak nahiz etxebizitzak birgaitzeko emandako laguntzak jaso dituzten 602 pertsonari egindako inkestaren emaitzak bildu ditugu.

Helburua: hartzaileek laguntzekin duten gogobetetasun-maila ebaluatzea eta hobetzeko alderdiak eta elementuak identifikatzea. Eta, horrekin batera, eraikinen ikuskapen teknikoari (EITari) buruzko ezagutza eta ikuskaritzaren ezarpen-maila ere ebaluatzea.

Era berean, adierazle eta aldagai garrantzitsuenen bilakaera ere aztertzen du txostenak, 2012. eta 2013. urteetan laguntza horiek jaso zituzten pertsonei egindako inkesta[1] oinarri hartuta.

Ondoren datorren laburpen-fitxan zehaztu dira lan horren alderdi operatiboak; hurrengo ataletan, berriz, lan-sistemaren emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu.

FITXA TEKNIKOA

1. Landa-lana: lana 2017ko ekainean egin da, CATI sistema erabiliz.
2. Laginaren tamaina: azterketa egiteko, Eusko Jaurlaritzaren birgaitze-laguntzak jaso dituzten 602 laguneko laginari egin zaio inkesta.
3. Errore-maila: laginak +/–% 4tik beherako errore estatistikoa dauka, eta % 95eko konfiantza-maila, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Lagina lurraldeka ere adierazgarria da, Araban 122 inkesta, Bizkaian 355 eta Gipuzkoan 125 egin baitira.
4. Lagina baliozkotzeko eta goratzeko prozesuak: landa-lana burutu ondoren, datu-fitxategia baliozkotu eta 2015ean eta 2016an laguntzak jaso zituzten pertsonen unibertso osora goratu da, eta, horrela, doitu egin dira hautapenean eta adierazpen estatistikoan egon zitezkeen alborapenak.


[1] Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egin zuen inkesta, birgaitze integratuko eremuen eta eremu degradatuen kudeaketa arautzen duen araudia aldatzeko orain dela hiru urte egin zen kontsulta- eta partaidetza-prozesuaren esparruan.

1. Laguntzei buruzko ezagutza: Informazio-bideak eta gogobetetasun-maila

Finken administratzailea da birgaitzeko laguntzen berri jasotzeko bide nagusia.

Finken administratzaileak dira **birgaitzeko laguntzen 2015eko eta 2016ko deialdietako informazio-iturri nagusia**. Laguntza jaso duten 10 onuradunetatik 6k haien bidez eskuratu dute laguntzei buruzko informazioa.

Jasotako laguntzen berri jakiteko iturriak. Aukera anitzeko erantzuna (%-tan)




Garrantzi txikiagoa eduki arren, **jabekideen erkidegoko lehendakaria** ere bide garrantzitsua da laguntzen berri jakiteko: **2015ean eta 2016an birgaitzeko laguntzak jaso dituzten bost pertsonetatik batek dio haren** bidez jaso duela laguntzen berri.

Gainerako informazio-iturrien pisu erlatiboa askoz txikiagoa da: birgaitze-alorreko enpresak (% 9,6), herri-erakundeak (Eusko Jaurlaritza, udalak eta abar % 5,3) eta lagun eta senideak (% 4,3).

Inkestari erantzun dioten pertsonen % 3k baino ez du jaso laguntza horien berri beste bide batzuetatik. Horietako gehienek prentsa idatzia aipatu dute informazio-iturritzat.

Hedabideen garrantzi erlatiboa laguntzen berri jakiteko (hedabideen bidez laguntzen berri jaso dutenen %-a)




Hiru lurralde historikoetan, finken administratzailea da birgaitzeko laguntzen berri jasotzeko bide nagusia.

Hiru lurraldeetan ikusi da finken administrazioak duen garrantzi handia laguntzen berri jasotzeko iturritzat. Izan ere, lurralde bakoitzean inkestari erantzun dioten pertsonen % 50ek baino gehiagok aipatu du bide hori.

Dena dela, **badirudi Bizkaian profesional horien garrantzia zertxobait handiagoa dela**; izan ere, inkestatutako hiru pertsonetatik bik diote haien bidez izan dutela birgaitzeko laguntzen berri. Gipuzkoan (% 51,2k) eta Araban (% 54,1ek) baino gehiagok, beraz.

Jasotako laguntzen berri izateko informazio-iturri nagusia, lurralde historikoaren arabera. Aukera anitzeko erantzuna (%-tan)




Finken administratzaileek laguntzen berri izateko informazio-iturritzat duten garrantzi erlatiboa nabarmen areagotu da 2012ko eta 2013ko deialdien aldean.

2012ko eta 2013ko datuekin alderatuz gero, 2015ean eta 2016an gora egin du **finken administratzaileek erreferentziako profesionaltzat duten garrantzi erlatiboak,** laguntza horiek eskatu eta tramitatzeko prozesuen berri emateko.

2012ko eta 2013ko deialdietan, inkestatutako pertsonen % 41,7k aipatu zituen finken administratzaileak laguntzen berri izateko informazio-iturri nagusitzat. Horrek esan nahi du **harrezkero finken administratzaileen garrantzia % 18 hazi dela informazioa eskuratzeko iturri gisa**.

Laguntzen berri izateko bideen garrantzi erlatiboaren bilakaera.

Jasotako laguntzen berri izateko informazio-iturri nagusiak. 2012-2013 vs 2015-2016




Laguntzei buruzko informazioa eskuratzeko erraztasunaren inguruko gogobetetasun-maila handia dago (7,59 puntu jaso du batez beste), eta gora egin du 2012-2013ko inkestatik hona.

Onuradunek batez beste 7,59 puntu aitortzen diote (0tik 10erako eskala batean) birgaitzeko laguntzen inguruko informazioa eskuratzeko erraztasunari. Horrek esan nahi du **2012-2013an emandako batez besteko baloraziotik hona ia puntu erdi hobetu** dela, orduko hartan batez beste 7,04 puntu aitortu baitzioten.

Informazioa eskuratzeko bideen balorazioan izandako **hobekuntza hori oso sendoa da, hiru lurralde historikoetako onuradunek antzera erantzun baitute**, hurrengo diagraman ageri denez.


Informazioa eskuratzeko erraztasunaren balorazioaren bilakaera (0tik —ez da batere erraza— 10erako —oso erraza da— eskala). 2012-2013 vs 2015-2016



Onuradun gehienek informazio-bide tradizionaletara jotzen dute oraindik ere.

Komunikazio-bideetan izandako aurrerakuntzen eta Interneten eta sare sozialen gorako garrantziaren gainetik ere, **laguntzen onuradun gehienek bide tradizionalak (posta, prentsa eta telebista) aipatzen dituzte laguntzen berri emateko biderik garrantzitsuentzat**.

Herritarrei etxebizitzak birgaitzeko laguntzen edukiak jakinarazteko bide nagusien garrantzi erlatiboa (erantzun anitzeko galdera)




Inkestari erantzun dioten **bi onuradunetatik batek (% 62k) dio posta tradizionala (informazioa postontzian aurkitzea) funtsezko bidea dela asmo horretarako**. % 48,7k prentsa aipatu du, eta % 40k telebista.

Aitzitik, **teknologia berriek oraindik ez dute onarpen-maila edo erabilera orokorrik birgaitzeko laguntzen onuradunen artean**, ziurrenik beraien profil soziodemografikoa dela eta, hein handi batean. Ildo horretan, informazioa Sailaren webgunetik eta sare sozialetatik emateko aukerak onarpen-maila apalagoa jaso du, beste informazio-bideen aldean (% 26koa eta % 14koa, hurrenez hurren).

Orokorrean, **hiru lurralde historikoetako onuradunen gehiengoa bat dator birgaitzeko laguntzei buruzko informazioa jasotzeko biderik egokienak ohikoak direla**: posta (postontzia), telebista eta prentsa.

Herritarrei etxebizitzak birgaitzeko laguntzen edukiak jakinarazteko bide nagusien garrantzi erlatiboa. Lurralde historikoaren araberako datuak (erantzun anitzeko galdera)



2. Laguntzak kudeatzeko prozesuak: erabili diren baliabideak eta balorazioa


Laguntzen onuradun gehienentzat finken administratzaileek funtsezko eginkizuna dute, halaber, laguntzak eskatzeko prozesuan.

Finken administratzaileak funtsezkoak dira, birgaitzeko laguntzei buruzko informazioa ezagutzeko ez ezik, laguntzak eskatzeko prozesuak eta tramiteak egiteko ere.

2015ean eta 2016an laguntzak jaso dituzten hamar lagunetatik seik (% 60k) esan dute profesional horien bidez kudeatu dituztela. 2012. eta 2013. urteko deialditik hazkunde handia egon da, orduko hartan % 42k adierazi baitzuen hori.

Garrantzi apalagoarekin, **2015eko eta 2016ko laguntzen onuradunen % 22k esan du bere kabuz egin zuela laguntzak eskatzeko prozesua.** Gestioa beren kabuz egin duten pertsona horientzat are garrantzitsuagoa da laguntzei buruzko informazioa eskuratzeko bidea. Horrekin batera, elkarrizketatutako pertsonen % 16k jabekideen erkidegoko beste pertsona batzuen laguntza (lehendakariarena, auzokideena) nabarmendu du.


Nola egin zenuen diru-laguntzaren eskaera? (Erantzun anitzeko galdera, %-tan)



Informazioa eskuratzeko gertatu bezala, **Bizkaian bizi diren onuradunek proportzio handiagoan jo dute finken administratzailearengana diru-laguntzen eskaera egiteko (% 65,4k).**

Nolanahi ere, Araban eta Gipuzkoan ere, finken administratzaileek funtsezko eginkizuna izan dute birgaitzeko laguntzak eskatzeko prozesuan (% 54,1ek eta % 53,6k jo dute eurengana, hurrenez hurren).

Nola egin zenuen diru-laguntzaren eskaera? Datuak lurralde historikoaren arabera (erantzun anitzeko galdera, %-tan)



Inkestaren emaitzetan ikus dezakegu, gainera, **onuradun askok beren kabuz egin dituztela diru-laguntzetarako tramiteak hiru lurraldeetan**. Ehuneko hori are altuagoa da Araban (lurralde horretako hiru onuradunetatik batek egin baitu bere kabuz).


Laguntzak kudeatzeko prozesuekiko gogobetetasun handiagoa nabari da, batez ere hasierako tramitazioari eta prozesua egiteko ezagutzari eta informazioari dagokienez.

Diru-laguntzak gestionatzeko prozesuen harira, 2015ean eta 2016an diru-laguntzak jaso dituztenek balorazio hobea egiten dute 2012ko eta 2013ko onuradunek erantzundakoaren aldean.

Hala, **tramitazio-prozesuen harira, ebaluazioaren emaitzen arabera balorazio bereziki positiboa jaso dute prozesua burutzeko erraztasunak** (7,5 puntu 0tik 10erako eskalan) **eta prozesuei buruzko ezagutzak** (7,3, 0tik 10erako eskalan).


Duela hiru urte egindako azterlanean bezala, **laguntzaren zenbatekoak eta kobratzeko epeak ez dute horren balorazio positiboa jaso**. Dena dela, **alderdi ekonomikoekiko gogobetetasunean ere hobekuntza nabaritzen da 2012ko eta 2013ko emaitzen aldean**.

Laguntzak gestionatzeko prozesuen balorazioaren bilakaera (eskala: 0tik —batere pozik ez— 10era —oso pozik—). 2012-2013 vs 2015-2016



Azkenik, nabarmendu behar da **oso sendoa dela laguntzak gestionatzeko prozesuekiko gogobetetasun-maila, hiru lurralde historikoetan oso antzeko datuak jaso dira eta.** Hartara, ebaluatutako alderdi guzti-guztietan lortu da, hiru lurralde historikoetan, gutxienez nahikotik gora dagoen batez besteko balorazioa.

Laguntzak gestionatzeko prozesuen balorazioa, lurralde historikoaren arabera (eskala: 0tik —batere pozik ez— 10era —oso pozik—)



3. Eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT): ezaguera-maila eta jasotako informazioaren balorazioa


2015eko eta 2016ko laguntzen onuradunen gehiengo zabalak dio badakiela EITak zer diren.

EITei eta birgaitzeko prozesuetan eta laguntzen kudeaketan duten pisuari buruzko ezagutza handia da. **2015eko eta 2016ko birgaitzeko laguntzen onuradunen % 68,6k dio badakiela EITak zer diren.**


Azpimarratzekoa da **beren kabuz, era autonomoan, adierazi dutela ezagutza hori badutela, elkarrizketatzaileek inolako azalpenik eman gabe.**

Berezko ezagutza horretaz aparte, hasiera batean EITen berri ez daukatela dioten lau pertsonetatik batek ezagutzen dituela esan du, inkesta egin dion pertsonak azalpenak eman ondoren. Beraz, era batera edo bestera EITen berri badutela dioten pertsonen ehunekoa % 76,4koa da.

Ezagutzen dituzu EITak (eraikinen ikuskapen teknikoak)?
EAEko eta lurralde historikoetako datuak




Bazenekien ikuskaritza mota hori zegoenik? (hasiera batean ezetz erantzun ondoren, inkestagilearen azalpen laburra jaso dutenen artean) EAEko eta lurralde historikoetako datuak




Era berean, **2014tik 2015era bitartean birgaitzeko laguntzak jaso dituzten hiru pertsonetatik bik (% 61,3k) bazekiten eurak bizi diren eraikinetan EITak tramitatu direla.** Hortaz, ikuskaritza-prozesu horiei buruzko kontzientzia-maila handia dago.

Badakizu zure eraikinean EITa egin ote duten? EAEko eta lurralde historikoetako datuak



Ildo beretik, esan behar da **jasotako laguntzak EITen emaitzei lotuta zeudela kasu gutxi batzuetan (% 28,2an)**, bai EAEko onuradun guztien artean, bai hiru lurralde historikoetako bakoitzean.

Eskatutako diru-laguntza EITaren emaitzari lotuta zegoen? EAEko eta lurralde historikoetako datuak




Finken administratzaileek, arkitektoek eta aparejadoreek EITei buruzko informazioan eta beraien tramitazioan duten garrantzia berretsi da.

Finken administratzaileak (% 42,5) eta arkitektoak eta aparejadoreak (% 32,5) dira jabekideen erkidegoetan EITei buruzko informazio- eta aholkularitza-lana bete dutenak. EITak egiteko zer prozesu egin behar den azaltzeaz gain, zer ondorio dituzten ere azaldu diete.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar dugu inkestan egindako galderak erreferentziako agente nagusi bakarra hautatzea eskatzen zuela; dena den, kontuan hartuta prozesu horiek luzeak izaten direla, azkenean bi profesionalek hartzen dute parte aholkularitza- eta informazio-lanetan.

Bizkaian eta Araban finken administratzaileak dira jabekideen erkidegoari informazioa eta aholkularitza emateko erreferentziako pertsonak. Gipuzkoan, ordea, badirudi garrantzi handiagoa izan dutela arkitekturaren alorreko profesionalek (arkitektoek, aparejadoreek...).


Nork azaldu zizuen EITa egitearen ondorioak eta zer urrats egin behar diren tramitatzeko? EAEko eta lurralde historikoetako datuak (%-tan)



Hiru lurraldeetako onuradunek oso balorazio positiboa egin dute EITak tramitatzeko prozesuan jasotako informazioari buruz.

EITak gestionatzeko prozesuan jasotako informazioari buruzko balorazio orokorra oso positiboa da (bere eraikinean tramitatu dela diotenen artean): **7,2ko puntuazioa jaso du batez beste** (0 oso txarra izanik eta 10 oso ona).

Balorazio positibo hori hiru lurraldeetan jaso da. Dena dela, Bizkaiko onuradunek egindako balorazioa (7,3koa) eta Gipuzkoakoek egindakoa (7,2koa), Arabakoek egindakoa (6,7koa) baino altuxeagoa da.



4. Birgaitzeko laguntzei lotutako beste alderdi batzuen balorazioa


Azkenik, birgaitzeko laguntzei eta EITei zuzenean lotutako beste alderdi osagarri batzuen balorazioa ere jaso du ebaluazio-prozesuak.

Onuradunen gehiengoaren ustez, kontserbazioari eta bizigarritasunari lotutako lanak subentzionatu behar dira (biek ala biek antzeko ehunekoa jaso dute), irisgarritasuna sustatzeko lanekin batera. Energia-efizientziari, berriz, oraindik gutxiengo batek aitortzen dio lehentasuna.

Inkestaren emaitzek agerian jarri dutenez, **oreka handia dago eraikineko elementu erkideak (fatxadak, teilatuak eta abar) kontserbatzeko eta bizigarri egiteko lanak diruz laguntzea lehenesten dutenen artean eta irisgarritasun-lanak —berdin elementu erkideetan** (arrapalak, igogailuak) **zein pribatiboetan** (bainugelak egokitzea…)**— diruz laguntzea lehenesten dutenen artean**.

Aitzitik, **kontsultatutako pertsonen % 4,3k baino ez du erantzun Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eraikuntzen eta etxebizitzen energia hobetzeko lanak subentzionatu beharko liratekeela lehenik eta behin**.


Zer obra motak jaso behar luke diru-laguntzarik handiena? EAEko eta lurralde historikoetako datuak (%-tan)



Dena dela, **oso esanguratsua da onuradunek eraikin eta etxebizitzen irisgarritasuna hobetzeko lanei eman dioten babesa**.

Babes hori are nabarmenagoa da kontuan hartuta kasurik gehienetan onuradunek kontserbazioari eta bizigarritasunari lotutako laguntzak jaso dituztela (inkestari erantzun diotenen % 68,1ek), eta laguntzen % 29,9 baino ez dela egon irisgarritasuna hobetzeko lanei lotuta.

Zer obra mota egin duzu jasotako laguntzen esparruan? EAEko eta lurralde historikoetako datuak (%-tan)




Ildo horretan esan behar da **elkarrizketari erantzun dioten onuradunak bizi diren eraikuntzetatik askok ez dutela oraindik irisgarritasun-maila nahikorik**. Adibidez, % 34tan ataria ez dago egokituta eta % 26tan eraikinak ez du igogailurik. Halako lanik ez egiteko arrazoi nagusia ez da dirua: % 18k baino ez du arrazoi hori erabili. Izan ere, % 44k dio ez dagoela igogailua ezartzeko leku nahikorik (eta jabe batzuen eremu pribatiboa hartu beharko luketela horretarako).


Garrantzi berezia du **etxebizitza barruko irisgarritasun-defizitak**. Izan ere, etxebizitzen % 65 ez da irisgarria barnean.

Inkestari erantzun dioten onuradunak bizi diren eraikinen eta etxebizitzen irisgarritasuna (%-tan)


Kalea irisgarria da (ataziraino)




Eraikina irisgarria da (atari barnean)



Etxebizitza irisgarria da (igogailua dago ateraino)



Etxebizitzaren barnealdea egokituta dago




Adostasun handia dago birgaitzeko laguntzak aldi batez alokairu babestura bideratzearen inguruan.

Azkenik, nabarmena da birgaitzeko programak etxebizitza hutsak mobilizatzeko erabiltzearekin dagoen adostasun-maila. **2015ean eta 2016an birgaitzeko laguntzak jaso dituzten hiru pertsonetatik bi halako laguntzak ematearen alde agertu dira (gero Bizigune edo ASAP programen bidez alokairu publikora bideratuko diren etxeak birgaitzeko erabiltzea).**

Zehazki, Gipuzkoan gehiago dira (% 70,4) **birgaitzeko halako laguntzen alde agertu direnak**, eta gutxixeago Bizkaian (% 59,4) eta Araban (% 56,6).

Bizigune edo ASAP programen bidez alokairu publikora bideratuko diren etxebizitzak egokitzeko laguntza-ildoarekiko adostasun-maila. EAEko eta lurralde historikoetako datuak (%-tan)



5. Ondorioak

2015ean eta 2016an eraikinak birgaitzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso duten 600 onuradunen iritzietatik **ondorioztatzen denez, 2012ko eta 2013ko deialdietan baino balorazio positiboagoa eta gogobetetasun-maila handiagoa jaso dute.**

Laguntzen berri izateko bideari eta tramitazioari dagokienez, ebaluazioaren emaitzek duela hiru urte egindako ondorio nagusiak berretsi dituzte; hau da, **finken administratzaileek funtsezko eginkizuna betetzen dutela subentzioen berri eman eta eskatzeko prozesuetan laguntzeko**.

Bereziago, hauxe nabarmen daiteke azterketatik:

- **Inkestatu gehienek (% 59,6k) finken administratzailearen bidez jaso du laguntzen berri. Izan ere, profesional talde horrek funtsezko eginkizuna du laguntzen berri ematean eta laguntzak gestionatzean.** Horrekin batera, eta **2012-2013ko datuekin alderatuta, profesional horien garrantzi erlatiboak gora egin du** jabekideen erkidegoei aholkularitza emateko eginkizunean.

- **Onuradun potentzialen zati handi batentzat, bide tradizionalak (prentsa, postontzi bidezko banaketa…) funtsezkoak dira, oraindik ere, laguntzei buruzko informazioa jasotzeko.** Gauzak horrela, 2012-2013an ere azaleratu zen errealitateak bere horretan jarraitzen du. Ez dirudi, beraz, Internetek eta sare sozialek aurrerakuntza handirik egin dutenik laguntzen onuradunentzako komunikazio-bidetzat.

- **Informazio- eta aholkularitza-prozesuak funtsezkoak dira**, batez ere 2015-2016an laguntzak eskatzeko prozesua beren kabuz egin duten onuradunen % 21,9rentzat.

- **Onuradunek oso balorazio positiboa egiten dute laguntzak tramitatzeko erraztasunaz** (7,5 puntukoa, 0tik 10erako eskala batean), eta **gestio prozesuen gaineko ezagutzaz** (7,3koa). Laguntzaren alderdi ekonomikoek (kobratzeko epeak eta zenbatekoak) ere balorazio positiboa jaso dute, baina ez horrenbestekoa.

- **Onuradunen balorazio positibo hori oso sendotzat jo daiteke**; izan ere:
  - **Aztertutako alderdi guztiek balorazio nabarmen positiboa jaso dute, hiru lurralde historikoetan.**
  - Bilakaerari erreparatuz gero, **aztertutako alderdi guztien balorazioak hobera egin du 2012-2013tik hona.**

- **EITen inguruan ezaguera-maila handia dago**: **lau onuradunetatik hiruk horixe adierazi dute**, beren kabuz edota inkestagilearen azalpena entzun ondoren. **Ezaguera-maila altu hori hiru lurralde historikoetan gertatzen da.**

- Berriro ere, **finken administratzaileek eginkizun garrantzitsua dute jabekideen erkidegoei EITen inguruko informazioa eta azalpenak ematen**. Arkitektoek eta aparejadoreek betetzen duten eginkizuna ere nabarmentzekoa da.

- **Adostasun-maila handia dago birgaitzeko laguntzak gero alokairura bideratuko diren etxebizitzak egokitzeko erabil daitezen.**

- **Onuradunen ehuneko handi batek (% 40,5ek) irisgarritasun-lanak lehenesten ditu diru-laguntza gehiago jasotzeko**. Antzeko mailan daude eraikinak eta etxebizitzak kontserbatzeko eta bizigarritasuna hobetzeko lanak lehenesten dituzten onuradunak. Aitzitik, gutxiengo batek baino ez du uste diru-laguntzak energia-efizientzia hobetzeko lanetara bideratu beharko liratekeela nagusiki.

- **Ezinbestekoa da halako laguntzak sustatzen jarraitzea**, batez ere irisgarritasunaren esparruan. **Izan ere, halako laguntzetako inbertsioa estrategikoa gerta daiteke geroz eta zaharragoa den gure gizartean, eta egoitzetako eta ekipamendu sozialetako beharrizanak eta gizarte-gastua geroz eta handiagoak diren honetan.**

- **2014an eta 2015ean laguntzak jaso dituzten pertsonen eraikinetan eta etxebizitzetan irisgarritasunari lotutako gabezia ugari antzeman daitezke**. Adibidez, eraikin askok ez dute igogailurik (normalean espazio erkideetan kokatzeko lekurik ez dagoelako edo arkitekturaren alorreko zailtasunak daudelako). Ildo beretik, **gabezia ugari antzeman dira etxebizitzetako elementu pribatiboak irisgarritasun-eskakizunetara egokitzeko** (etxebizitzen % 65etan).